

## Inbertitzeko printzipioen aitortpena

### Euskadiko Pentsioak Garantizado XXXII, BGAE

#### 1.> Aurreikuspen-planaren identifikazio-datuak

##### >> Aurreikuspen-planaren datuak

**a. Izena** Euskadiko Pentsioak Garantizado XXXII, BGAE  
**b. Sistema** Sistema indibidualako aurreikuspen-plana

##### >> Borondatezko Aurreikuspeneko Erakundearen datuak

**a. Izena** Euskadiko Pentsioak, BGAE  
**b. BGAE-en erregistroko zenbakia** 106-G  
**c. IFZ** V20211702

##### >> Aurreikuspen-plana sustatu eta gordailatzen duen erakundearen datuak

**a. Izena** Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito  
**a. Helbide soziala** Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g.  
20500 - Arrasate (Gipuzkoa)  
**b. IFZ** F75076935

##### Planaren Bermatua Inbertsi-orientazioa:

#### 2.> Inbertitzeko printzipioen aitortpena

>> **Inbertsio-irizpidea** Planaren aktiboa osoko edo ohiko bazkideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispertsioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.

>> **Balorazio-irizpidea** Merkaturko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, funtsean, Planeko aktiboak, indarreko legediak finkatzen dituen gidaleroei jarraiki.

>> **Banaketa estrategikoa** Errenta finkoa: 100%

>> **Inbertsio-politikaren mugak** Indarreko legediak ezarritako inbertsio-mugak errespetatuko ditu Planak, eta, bereziki, BGAE-en zenbait jardura arautzen dituen maiatzaren 29ko 97/2007 Dekretuaren 11. artikulua. Planak ez du IKE-etan, aktibo egituratuetan, akzioetan eta arrisku-kapitaleko partaidetzetan inbertituko.

>> **Aktibo gaiak** Indarreko araudiak une bakoitzean ahalbidetzen dituen aktibo gaietan inbertitu ahal izango du Planak, baina inbertsio-politikaren mugetan ezarritakoa ahaztu gabe. S&Pren eta antzekoen BBB- inbertsio mailako ratingdun jaulkipenetan inbertituko dira, funtsean, errenta finkoko aktiboak, eta rating txikiagoak edo ratingik gabekoak, gehienez, aktiboen % 25 izango dira. Mugaeguna bermearen mugaegunaren arabera izango da.

>> **Deribatuak** Indarreko legediari jarraiki, Panak izango du tresna deribatuetan inbertituz, bai estaldurako eragiketetan bai inbertsio-koetan, baina arrisku-profila errespetatuta betiere.

>> **Arrisku-profila** Aurreikuspen-plan honek arrisku-profil txikia du, eta inbertsio-profil kontserbadoretarako eta/edo erreskatara edo kitapenera arteko epea bermaldia baino handiagoa dutenentzat da gomendagarria.

>> **Arriskuak neurtzeko metodoak** Merkatu-arriskua . Errenta Finkoa: Planaren iraupena bermearen mugaegunaren arabera izan dadila kontrolatzen da. Aktiboak ELGaren esparruan jaulkiko dira.

Deribatuak: Deribatuak posizioaren delta eskurako posizioari gehitzen zaio, errenta finkoa iraupen-mugak kontrolatzeko.

Alderdi kontrarioaren arriskua.

Jaulkitzailearen kalitatea aktibo egokien atalean finkatutako mugaren arabera kontrolatzen da.

Likidezia-arriskua.

Bazkide partaideen mugimenduei erantzuteko beharrezko likidezia egunero kontrolatzen da.

Arrisku legalak.

Arauk zenbateraino betetzen diren eta Gobernu Batzordeak finkaturiko inbertsio-jarraibideak kontrolatzen dira.

Eragiketa-arriskua.

Eragiketak eta horien berrespenak kontrolatzeko prozesuak daude, aktiboen prezioak zuzenak direla eta egoki balioetsita daudela ziurtatzeko. Kontabilitate-bateratzeak egunero egiten dira. Euskadiko Kutxak jokabideen barne-araudia eta sistema informatikoetarako kontingentzia-plana ditu.

>> **Arriskuak kudeaketa kontrolatzeko prozedurak** Gobernu-batzordeak Planaren arriskuaren kudeaketa kontrolatzeko prozedura bat onartu du. Hori Erakundearen eta Euskadiko Kutxaren artean formalizaturiko kudeaketa-, administrazio- eta gordailu-kontratuan jasotzen da. Kontratu horren arabera, Euskadiko Kutxak aldizka informazioa eman beharko dio aurreikuspeneko erakundeari, horrek kontratuko finantza-aktiboen kudeaketa eta egoera egoki kontrolatu ditzan. Zehazki honako informazio hau emango zaio:

- ✓ Jardueraren negozio-zifrak. Nagusiki: kudeaturiko ondarearen tamaina, bezero-kopurua, komisioak eta sorturiko emaitzak.
- ✓ Planen errentagarritasun datuak eta lehiakideekiko egoera.
- ✓ Zorroen xehetasuna, horien arrisku-parametroena eta horien egoera plan bakoitzerako zehazturiko inbertsio-planekiko egoerarena.
- ✓ Eredu-zorroak, benetako zorroen emaitzak eta erreferentzia-adierazleen bilakaera.
- ✓ Eginiko eragiketen eta eguneko balorazioen hileko txosten osoa.

Euskadiko Kutxak kudeatzen duen aurreikuspen-plan bakoitzerako eginiko inbertsioak aurreikuspeneko erakundearen gobernu-batzordeak onarturiko Inbertsio Printzipioen Aitortpena egokitu beharko dira.

Euskadiko Kutxak bere administrazio- eta kontabilitate-antolakuntzaren esparruan barneko kontrol-prozedurak eduki beharko ditu, kudeatzen dituen aurreikuspen-planen inbertsioak aurreikuspeneko erakundearen gobernu-batzordeak onarturiko erabakiak errespetatuz egiten direla bermatzeko. Gainera, Entitatearentzat lan egiten duten pertsonen funtzionamendu egokia zaindu beharko du, baita informazioari eta parte hartzeari loturiko gaien inguruan bazkideekiko eta onuradunekiko BGAE-en jardura ere.

>> **IJA Politika** Euskadiko Pentsioen Gobernu Batzordeak inbertsio jasagarri eta arduratsuari buruzko politika bat onartu du, aktiboak aukeratzean bazterte eta balorazio irizpideak erabiltzean datzana.

>> **Errentagarritasun helburua** Bermealdian adierazitakoa izango da mugaegunean jasoko den errentagarritasuna.